

BEZEROEN SEGMENTUA

Gure erosle nagusiak batxilergoko ikasleak dira. Ikasle guztiak portatilak dituzte eta gure ustez euskarri hau erosiko lukete, eskolan nahiz etxean errazago eta erosoago lan egin dezaten. Batxilergoko ikasleak ikasteko ordenagailuak erabiltzen hasi dira eta momentu hau aprobetxatu nahi dugu soporte ahalik eta gehienak saltzeko. Ikasteko erreminta nagusiak portatilak gaur egun direnez, ez dugu uste problema asko egongo denik ikasleei zein irakasleei gure produktua saltzeko.

Gainera ingurumena zaintzeko mugimendu modura saldu ahalko genuke, gure produktuaren materialengatik. Honek, beste bezero segmentu bati saltzeko aukera emango liguke, hau da, ingurumen babesaren alde dauden pertsoneri, eta modu honetan gure produktuak ospe handia lortuko luke.



Beste segmentu bat, portatila duen edozein pertsona izango litzateke. Gure produktua unibertsala denez ez ditu neurri zehatz batzuk eta portatila guztientzako aproposa da.

